



LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA  
ETA GARRAIO SAILA  
Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetza  
Garraio Azpiegituren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN  
TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES  
Viceconsejería de Infraestructuras y Transportes  
Dirección de Infraestructuras del Transporte

**GIPUZKOAKO KOSTA ZERBITZU PROBINTZIALA  
SERVICIO PROVINCIAL DE COSTAS EN GIPUZCOA**

Kostaldeen mugartea / Demarcación de costa

**At. D. JOSÉ LUIS TEJERINA jaunari**

Probintziako Zerbitzuko burua Jefe del Servicio Provincial  
Pío XII plaza, 6-3. Solairua Plaza Pío XII, nº 6-3ª Planta

**20010 - DONOSTIA-SAN SEBASTIAN**

Tejerina jaun agurgarria:

Idazki honen bitartez, Euskal Trenbide Sarearen (ETS) Bilbo - Donostia trenbide lineari dagozkion eta Urolaren Itsasadarrean (Zumaiako udalerrian) dauden Itsas eta Lurreko Jabari Publikoko lurrak atxikitzea eskatzen da.

Urolako itsasadarreko TMZ atxikitzeko eskaera-agiria duen esteka hau eransten da:

<https://hodei.ets-rfv.eus/s/NcrXtMmcJzm5tQT>

Bestalde, 2020ko otsailean, ETSk, 2012an idatzitako Urola ibaiaren gaineko zubia Konpontzeko Proiektuaren Berrikuspen-txostena eskatu zuen, proiektua lizitatzeko moduan zegoen edo eguneratze bat behar zuen zehazteko, proiektua idatzi zenetik igarotako denbora kontuan hartuta, eta ondorioztatu zuen beharrezkoa zela proiektua berrikustea, egungo narriadura-egoera, arau-aldaketak eta jarduketan merkatu-prezioen balizko aldaketak kontuan hartzeko.

Estimado Sr. Tejerina,

Por la presente se solicita la adscripción de los terrenos del Dominio Público Marítimo Terrestre, correspondientes a la Línea ferroviaria Bilbao - Donostia de Euskal Trenbide Sarea (ETS) en la Ría del Urola (término municipal de Zumaia).

Se adjunta el siguiente enlace con el documento de solicitud de adscripción del DPMT de la Ría del Urola:

<https://hodei.ets-rfv.eus/s/NcrXtMmcJzm5tQT>

Por otro lado, en febrero de 2020 ETS encargó el Informe de Revisión del Proyecto de reparación del puente sobre el río Urola, redactado en 2012, para determinar si el proyecto estaba en condiciones de ser licitado o si requería de una actualización teniendo en cuenta el tiempo transcurrido desde la redacción del proyecto, concluyendo que era necesario acometer una revisión del proyecto para tener en cuenta el estado de deterioro actual, los cambios normativos y las posibles modificaciones en los precios de mercado de las actuaciones de reparación.



Konpontzeko alternatibak aztertu ondoren, "ETS-REN BILBO - DONOSTIA LINEAKO 79/036 K.P.AN, ZUMAIAN, GIPIZKOAN, DAGOEN UROLA IBAIAREN GAINEKO ZUBIA KONPONTZEKO ETA INDARTZEKO ERAIKUNTZA PROIEKTUA idatzi du ETSk. Dokumentu horretan egituraren egungo egoeraren eta lehenbailehen konpondu behararen berri ematen da. Haren azterlanetik ondorioztatzen denez, egitura metalikoak 8 mm inguruko sekzio-galerak ditu hainbat eremutan, hidroxidoaren metaketaren ondorioz; halaber, masa-galerak daude estribuetako eta piletako harlanduetan. Egituraren egungo degradazio-egoeraren fede ematen duten Konponketa-proiektuaren dokumentuak erantsi dira.

Elementu metaliko batzuek erakusten dituzten korrosio aurreratuak eragindako kalteek sekzio erresistentea galtzea dakarte, eta hori ezin da gutxietsi; ondorioz, galera erresistente horiek konpontzeko jarduketa bat gauzatzea ere beharrezkoa da. Era berean, pinturak hondatze-zantzuak ditu egituraren zati handi batean, azken birpintaketatik igaro den denbora dela eta; hori dela eta, zorrotatzea eta birpintaketa berria egitea komeni da.

Gaur egun, ETS/RFVtik eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailetik, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren bitartez, trenbide lineek eragina jasotzen duten itsas-lehorreko jabari publikoko lurra atxikitzeko izapideak ari dira egiten. Hala ere, zubiko konponketak ahalik eta lasterren egin behar direnez, Gipuzkoako Kostaldean Zerbitzu Probintzialari dagokion baimena eskatu behar diogu, eraikuntza-proiektuan

Tras el estudio de alternativas para su reparación, ETS ha redactado el "PROYECTO CONSTRUCTIVO PARA REPARACIÓN Y REFUERZO DEL PUENTE SOBRE EL RÍO UROLA EN EL P.K. 79/036 DE LA LÍNEA BILBAO - DONOSTIA DE ETS EN ZUMAIA, GUIPÚZKOA". En este documento se da cuenta del estado actual de la estructura y de la necesidad de su urgente reparación. De su estudio se desprende que la estructura metálica sufre pérdidas de sección en diversas zonas del orden de 8mm debido a la acumulación de hidróxido; hay, también, pérdidas de masa en los sillares de estribos y pilas. Se adjuntan los documentos del proyecto de reparación que dan fe del estado actual de degradación de la estructura.

Los daños por corrosión avanzada que presentan algunos de los elementos metálicos implican una pérdida de sección resistente que no se puede despreciar, y que por tanto, hacen, también, necesaria una actuación para corregir estas pérdidas resistentes. Del mismo modo, la pintura muestra signos de deterioro en buena parte de la estructura debido al tiempo transcurrido desde el último repintado, lo que aconseja su chorreo y nuevo repintado.

Actualmente, desde ETS/RFV y el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, a través de la Dirección de Infraestructuras del Transporte, se están llevando a cabo los trámites para adscribir los terrenos de dominio público marítimo-terrestre que sus líneas ferroviarias afectan. Sin embargo, la necesidad de acometer las reparaciones en el puente, en el menor plazo posible, nos obliga a solicitar al Servicio Provincial de Costas de Gipuzkoa la pertinente



jasotzen diren obrak **premia**z hasi ahal izateko.

Esteka honekin batera doa Zumaian, Bilbo-Donostia lineako 79+036 KP-an, Urola ibaiaren gaineko Zubia Birgaitzeko Eraikuntza-proiektua.

<https://hodei.ets-rfv.eus/s/j3qoGbJ3f79PCda>

Adeitasunez,

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 27a

autorización, con **carácter urgente**, para el inicio de las obras contempladas en el proyecto constructivo.

En el siguiente enlace se adjunta el "Proyecto Constructivo de Rehabilitación del Puente sobre el Río Urola en Zumaia, en el PK 79+036 de la Línea Bilbao-Donostia".

<https://hodei.ets-rfv.eus/s/j3qoGbJ3f79PCda>

Atentamente,

Vitoria-Gasteiz, 27 de Abril de 2022



DOLORES DE JUAN DE MIGUEL  
**GARRAIO AZPIEGITUREN ZUZENDARIA**  
**DIRECTORA DE INFRAESTRUCTURAS DEL TRANSPORTE**